



Bilboko Konpartsak

Tel.: 607 653 545 E-mail: bulegoa@bilbokonpartsak.eus

Bilboko Konpartsen 2024ko Aste Nagusiko programazioaren aurkezpena

Hizlariak: Haizea Larrosa eta Arrate Azaceta

Egun on eta ongi etorri Bilboko Konpartsen 2024ko Aste Nagusiko programazioaren aurkezpen-ekitaldi honetara.

Aurten, abuztuaren 17a eta 25a bitartean, 600 ekitalditik gora antolatu ditugu, Bilboko Konpartsen Federazioak eta konpartsak guztiok, orotara, Jai Batzorde Mistoak antolatutakoez gain. Egunez eta gauez, adin guztietarako ekintzak izango dira. Hilabeteak daramatzagu programazio herrikoi, anitz, doako eta parte-hartzaile hau prestatzen Bilbotar ororentzat.

Haurrentzako ekintzak eta itsasadarraren protagonismoa nabarmenduko dira aurtengo programazioan. Itsasadarrera egingo dugu salto aurten Bilboko Konpartsok, egunez egindako jarduerak eta, batez ere, kirol lehiaketa ugari izango dituen Aste Nagusiko programazioan. Berriro ere ahalegindu gara inguruko kulturgile eta kirol eragileekin harremanetan sakonduta, elkarlanaren bidetik gure programaziora ekarpen irudimentsuak eta askotarikoak gehitzen.

Skatetik abiatuko gara: Astelehen goizean skatean trebatzen hasteko tailer bat izango dugu kirol honen sustapena bultzatzeko eta arratsaldean, adituagoak direnek beren trebetasunak II. Aste Nagusia Skate Lehiaketan parte hartu ahalko dute, norgehiagoka herrikoi eta ikusgarrian.

Waterpolo: Erripatik sartuta, itsasadarra waterpolo jokalariek beteko dute astearte arratsaldean, lagun arteko lehiaketan. Asteazkenean, lehiaketa herrikoiaren txanda izango da, waterpoloan aritu gabekoentzako aukera aparta!

Xakeari dagokionez, Aste osoan zehar adin guztielarako hainbat xake partida, itsuak, azkarvak, taldeka... Eta amaiera emateko, lehiaketa nagusia izango dugu larunbatean.

Saskibaloia 3x3: asteazkenean, goizez, haur eta gaztetxoak arituko dira saskibaloi lehiaketan, eta arratsaldez, 16:00etatik aurrera, helduak, Erripa kaia kirolez betetzen.

Piraguak: igoera Itsas Museotik hasi eta San Antongo Zubian bukatzen den doako trabesia bat da, 100 pertsona inguruk parte hartzen dutena, asteazkenean 16:30etik aurrera

Rap-a: gure inguruko rapero eta bertsolariek Arriaga plaza hartuko dute astearte arrastian, elkarri puntu eta rap ugari botatzen, umore onez eta euskaraz. Gaurkotasun eta indar handiko bi ahozko adierazpen elkartuta, bat-batekotasunaren garrantzia eta euskal kulturaren adierazpen aniztasuna nabarmendu nahi izan dugu.

Horiez gain, bloodbowl, goitibera, igel-toka, open magic, mus txapelketa... Horien guztien informazioa eta izen-estateak zabalik daude gure bilbokokonpartsak.eus webgunean. Horiez gain, badira urteroko ezinbesteko hitzordu parte-hartzale potoloak ere, Lehiaketa Gastronomikoa eta aurten 26. edizioa izango duen Hiri Krosa kasu.

Haurrentzako atal berezitua dugu gure programazioan, eta beraientzat antzerkia, jolasak, gastronomikia, tailerrak, zezen-suzkoak, igel-toka, puzgarriak eta beste ekitaldi asko egongo dira aste osoan. Aurten Konpartsakidetu ekimena egongo da berriro, haurren artean konpartsazaletasuna sustatzeko, Karpaxo eta Mekanitxin pertsonaiek

lagunduta. Karpatxo eta Mekanitxin haurren pertsonaia gogokoena dira, Areatza betetzen duten karpa eta mekanotuboen adierazle, eta goitiberetan, gastrotxikian, Eraiki zure txosna, serigrafia eta kalejira tailerretan izango ditugu. Haurrek plaza bete dezaten!

Aipatu dugu Lehiaketa Gastronomikoa, eta, bertako programazioak aparteko garapena behar duenez, abuztuaren 7an, ostiralan egingo dugu, 11:00etan Erriberako Merkatuan, aurtengo Lehiaketa Gastronomikoaren aurkezpen xehatua.

Egunez izango ditugun dantza eta musikaz gain (dantza plaza, fanfarreak...), gauez ere, ekitaldi ugari izango dira, tartean hainbat euskal talderen kontzertuak: Ithaka, Ama Say, Bulego, La Furia, Amooma, Etxekalte, Dupla, The Cherry Boppers, Garilak 26, Leihotikan, Afrika, Mice, Txapelpunk, Euskatalites eta beste asko.

Aurten irudi korporatibo berria estreinatu dugu, tipografiaren eta ikono koloretsu berriekin. Ikusiko zenuten jada hainbat euskarritan eta ikusiko duzue eskupaperean eta Aste Nagusiko karteleria guztian.

Pasapotea bultzatu dugu aurten, pasapoteen tirada bikoiztu dugu, jendeak txosna guztiak ezagutzea bultzatzeko, eta edalontzi berrerebilgarri berria aterako dugu diseinu berriarekin. 1978an Eguillorrek diseinatutako zapia ere indartuko dugu, ale asko egin baititugu aurten, zabalkundea emateko.

Guneetan, txosna eta gune bakoitzean programatuko dena zerrendaezina egiten zaigu une honetan. Txinparta konpartsaren ekarpena ere izango dugu aurten, badakigu gauza asko prestatu dituztela euren txosna berrian. Txosnak asteazkenean hasiko dira muntatzen, eta orduan emango ditugu muntatze-lan horien inguruko datu gehiago.

Programazio honen berri emateko, aurten 15.000 liburuxka atera ditugu, eta ekitaldi guztien gaineko informazioa, kartelak eta izen-estateak bilbokonpartsak.eus webgunean aurkituko dituzue. Liburuxka bera ere bertatik jaitsi daiteke PDF formatuan. Gainera, aurten, berriro

sakelakoetarako APP bat osatu dugu, programazioaren eta jakingarri interesgarrienen berri emateko. Iaz bezala, webAPP bat izango da, beraz, hemendik aurrera app.bilbokonpartsak.eus helbidean aurkitu ahal izango duguna, gure sakelako telefonora gehitzeko.

Tira, horraino nobedade nagusiak. Espero dugu ekintzok bilbotar eta bisitari denon gustokoak izatea eta, batez ere, denon parte-hartze gogotsua, beti ere, alaitasunez eta elkarrenganako errespetuz. Izan ere, aurreko urteotako bideari jarraiki, Bilboko Konpartsok ez dugu inolako erasorik onartuko, oso adi eta erantzuteko prest egongo gara. Abuztuaren 16ko agerraldian emango ditugu gai honi buruzko gure dinamiken inguruko xehetasunak.

Era berean, amaitzeko eta, urtero bezala, larunbatean txupin garbia izan dadin dei egiten dugu, denok jaiez eta Arriaga aurrean txupinaz gozatzeko eskubidea dugulako, baita mugikortasun-zaitasunak dituztenek ere.

Marijaiak, Txupinerak eta Pregoiariak lagunduta Aste Nagusi ahaztezina opa dizuegu denoi, jai-eredu herritar eta parte-hartzalea egiten segi dezagun denon artean.

Badator...

Gora Aste Nagusia!

Gora Marijaia!



Bilboko Konpartsak

Tel.: 607 653 545 E-mail: bulegoa@bilbokonpartsak.eus

Presentación de la programación de Bilboko Konpartsak para la Aste Nagusia 2024

Intervienen en nombre de Bilboko Konpartsak: Haizea Larrosa y Arrate Azaceta

Buenos días y bienvenidas a este acto de presentación de la programación de Bilboko Konpartsak para la Aste Nagusia 2024.

Además de las organizadas por la Comisión Mixta de Fiestas, este año, entre los días 17 y 25 de agosto, hemos organizado más de 600 actividades, entre la Federación de Comparsas de Bilbao y cada comparsa. De día y de noche, habrá actividades para todas las edades. Llevamos meses preparando esta programación popular, variada, gratuita y participativa para toda la gente.

Las actividades infantiles y el protagonismo de la ría destacarán en la programación de este año. Saltamos a la ría este año, en una programación de Aste Nagusia que contará con muchas actividades realizadas durante el día y, sobre todo, con numerosas competiciones deportivas. De nuevo hemos tratado de, profundizando en la colaboración con agentes de la cultura y deporte del entorno, incorporar actividades variadas e imaginativas a nuestra programación.

Comenzaremos con el Skate: El lunes por la mañana tendremos un taller para empezar a formarnos en skate, garantizando la promoción de este deporte, y por la tarde, l@s más expert@s podrán mostrar sus habilidades

participando en el II. concurso de skate Aste Nagusia, en un duelo popular y espectacular.

Waterpolo: entrando por Ripa, el martes por la tarde llenarán la ría l@s jugador@s de waterpolo en competición amistosa. El miércoles, será el turno de la competición popular, una oportunidad excepcional para quienes no hayan competido en waterpolo.

En cuanto al ajedrez, durante toda la Semana varias partidas de ajedrez para todas las edades, ciegas, rápidas, por equipos... Y como colofón final, tendremos la competición principal el sábado.

Baloncesto 3x3: el miércoles, por la mañana, txikis y jóvenes participarán en el concurso de baloncesto, y por la tarde, a partir de las 16:00, l@s adult@s llenarán de deporte el muelle de Ripa.

Piraguas: La subida de piraguas es una traviesa gratuita que comienza en el Museo Marítimo y termina en el puente de San Antón, en la que participan alrededor de 100 personas, el miércoles a partir de las 16:30 horas

Rap: L@s bertsolaris y raper@s de nuestro entorno ocuparán la tarde del martes la plaza Arriaga, lanzándose puntos y rapeando, con buen humor y en euskera. Juntando dos fenómenos de expresión oral, hemos querido destacar la importancia de la improvisación y la pluralidad de expresiones de que goza la cultura vasca.

Además de estos, tendremos bloodbowl, goitiberas, rana, open magic, campeonato de mus... La información y las inscripciones de todos ellos están abiertas en nuestra web bilbokokonpartsak.eus. A ellos se suman las imprescindibles citas participativas importantes de cada año, como el Certamen Gastronómico y el Hiri Krosa del viernes, que este año alcanza su 26^a edición.

Contaremos con una sección infantil diferenciada en nuestra programación: habrá teatro, juegos, gastrotxiki, talleres, toro de fuego, rana, hinchables y muchas otras actividades durante toda la semana. Este año vuelve a haber

la iniciativa Konpartsakidetu para fomentar el comparserismo entre los niños, acompañada por l@s personajes Karpatxo y Mekanitxin. Estos son los personajes favoritos de l@s niñ@s, exponentes, respectivamente, de las carpas y mecanotubos que llenan el Arenal, y los tendremos en goitiberas, gastrotxiki, los talleres de “eraiki zure txosna”, serigrafía y pasacalles. ¡Para que los niños llenen la plaza!

Ya hemos mencionado el Certamen Gastronómico y, como su programación requiere un desarrollo propio, el viernes 7 de agosto, a las 11:00 horas en el Mercado de la Ribera, haremos la presentación detallada del Concurso Gastronómico de este año.

Además de los bailes y la música que tendremos durante el día (bailes de plaza, fanfarrias, etc.), también por la noche, habrá numerosas actuaciones, entre ellas conciertos de grupos vascos como Ithaka, Ama Say, Bulego, La Furia, Amooma, Etxekalte, Dupla, The Cherry Boppers, Garilak 26, Leihotikan, Afrika, Mice, Txapelpunk, Euskatalites y muchos más.

Este año estrenamos nueva imagen corporativa con nuevas tipografías y coloridos iconos. Ya lo habréis visto en diferentes soportes y lo veréis también en el programa de bolsillo y en toda la cartelería de Aste Nagusia.

Este año hemos dado un impulso al pasapote, hemos doblado la tirada de los pasapotes, para animar a que la gente conozca todas las txosnas, y vamos a sacar un nuevo vaso reutilizable con un nuevo diseño. También reforzaremos el pañuelo diseñado en 1978 por Egillor, ya que este año hemos hecho muchos ejemplares para su difusión.

Se nos hace en este momento imposible enumerar lo que se va a programar en cada txosna y gune o zona del recinto festivo. Este año también contaremos con la aportación de la comparsa Txinparta Feminista, y sabemos que han preparado muchas cosas en su nueva txosna. Las txosnas comenzarán a montar el miércoles, momento en el que daremos más datos sobre esas labores de montaje.

Para dar a conocer esta programación, este año hemos editado 15.000 folletos en los que encontraréis información sobre todos los actos, los

carteles e inscripciones los encontraréis en la web bilbokonpartsak.eus. También se puede descargar el folleto en formato PDF. Además, este año hemos vuelto a crear una APP móvil para informar de la programación y de las novedades más interesantes. Al igual que el año pasado, será una webAPP, por lo que a partir de ahora podremos encontrarla en app.bilbokonpartsak.eus y añadirla a nuestro móvil.

En fin, hasta ahí las principales novedades. Esperamos que estas iniciativas sean del agrado de todo el mundo y, sobre todo, de la participación activa de todas las gentes del botxo y visitantes, siempre con alegría y respeto mutuo. De hecho, siguiendo el camino de años anteriores, Bilboko Konpartsak no toleraremos ningún tipo de agresión, estaremos muy atentas y dispuestas a responder. En la comparecencia del 16 de agosto daremos detalles de nuestras dinámicas sobre este tema.

Para terminar, y como todos los años, hacemos un llamamiento para que el del sábado sea un txupin limpio, porque todas tenemos derecho a disfrutar de las fiestas y del txupin frente al Arriaga, incluyendo a quienes tienen dificultades de movilidad.

Os deseamos una Aste Nagusia inolvidable en compañía de Marijaia, Txupinera y Pregonera, en la que sigamos practicando un modelo festivo popular y participativo.

Badator...

Gora Aste Nagusia!

Gora Marijaia!